



# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA

INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO



Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

**ZURI GERTA DAKIZUKE**

**Internet telefono mugikorrean**



KONTSUMOBIDE  
**ALDIZKARIA**

2013

18 zk.



# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

*Gailu mugikorrek ia leku eta une guztietan komunikatzea eta informatzea ahalbidetzen dute. Horregatik dira hain baliagarriak laneko zein aisiako joan-etorrietan lokalizatuta eta informatuta egoteko. Gailu horiekin, Interneten nabiga daiteke, baita posta elektronikoa kontsultatu edo gizarte-sareetan parte hartu ere.*

*Faktura jasotzearekin batera ezustekorik jaso nahi ez badugu, atzerrira bidaiatzean kontuan izan beharreko alderdi bat gure telefonia-operadorearen Roaming eskaintza da.*

Otsailean, Iker Andorrara joan zen eskiatzera asteburu baterako. Andorrara iritsi zenean, dei pare bat egin zuen (familiari eta lagunei) iritsi zela jakinarazteko eta inbidia pixka bat emateko. Arratsaldean pistetara igo ziren. Eguraldi ikusgarria zegoen; luzaroan aritu zen mendiei argazkiak ateratzen, eta kirol horretan hasiberria zen Mikel lagunaren erorikoren bat betikotu zuen.

Argazkiak WhatsApp bidez partekatu zituen bere koadrilarekin.

Eguneroko bizitzara itzuli zenean eta asteburuko ihesaldia ia ahaztuta zuenean, mugikorraren faktura iritsi zitzaion. Kontsumoa ohikoaren bikoitza zen. Ezin zuen ulertu. Zer gertatu zen? Hasierako shockaren ondoren, operadoreari deitzeko eta erreklamazio bat jartzeko asmoa izan zuen. Baina





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

banku-mugimenduetako kargua besterik ez zuen ikusi. Hobeto fakturari begiratu bat ematea. Faktura ikusi ondoren, hasieran sustoa eta haserrea sentitu zuen, baina horren ondoren, guztiz harrিতa geratu zen. Fakturaren xehetasunean oso tarifa garestiko deiak eta Internet-konexioa agertzen ziren, baina nola? Berak tarifa finkoa eta deiak doan dauzka-eta (kasualitatez, Andorran egon zen asteburuan)!

Zalantzarik gabe, operadoreari deitu zion erreklamazio argi bat jartzeko: mugikorrean tarifa finkoa kontratatuta zeukanez gero, ez zegoela kontzeptu horiek ordaintzeko prest.

Azkenik, operadorearen azalpenak entzun ondoren ulertu zuen fakturan ez zegoela akatsik. Bidaia garesti atera zitzaion. Ez zuen Roaming tarifa aktibatu lurralde nazionaletik atera zenean. Gainera, jakin zuen Andorran ez direla eurotarifak aplikatzen. Seguru asko ez du elurretan igarotako asteburu hori ahaztuko!

## Horrelako egoerak saihesteko, KONTSUMOBIDEk honako hauek gomendatzen ditu:

- *Bidai bat egin aurretik gomendagarria da gure telefonia-operadorearen Roaming eskaintzak aztertzea eta gehien komeni zaiguna aurretiaz kontratatzea.*





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

- Gure herrialdeko mugetatik kanpo gaudenean konektatuko garen operadore anfitrioiak hautatzeko aukera izaten da mugikor gehienetan. Gure bertako operadoreak aurretiatzko akordioa izaten du operadore anfitrioi jakin batekin, baina ez da beti merkeena izaten. Beraz, gomendagarria da tarifarik merkeenak dituen operadorea aukeratzea.

- Bidaian gauden bitartean Internet erabili behar badugu, operadoreek eskaintzen dituzten Roamingerako datu-tarifa bereziak kontratatzea ideia ona izan daiteke.
- Kontuz erabili behar dugu gure telefono mugikorreko GPSa gure herrialdearen mugetatik kanpo bidaiatzen dugunean. Smartphonetako aplikazio gehienek (adibidez Google Maps-ek) GPSko asistentzia-sistema bat erabiltzen dute, hau da, operadore telefonikoetako GPS zerbitzarietara konektatzen dira datuak azkarrago eta zehaztasun gehiagorekin jasotzeko. Beraz, datu-transferentziagatik ordaindu egin beharko dugu.

## Kontsumobideren informazio eta gomendio gehiago honako helbide honetan:

[http://www.kontsumobide.euskadi.net/y10-kbinfo03/es/contenidos/informacion/kb\\_temas\\_telefonia\\_movil/es\\_sll/telefoniamovil.html](http://www.kontsumobide.euskadi.net/y10-kbinfo03/es/contenidos/informacion/kb_temas_telefonia_movil/es_sll/telefoniamovil.html)





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

## Telefoniaren eta mugikorreko Internetaren inguruko gatazkak konpontzeko bideak

